

Bakerako Euskal Bidea

 ehbildu



ehbildu



Euskal Herria Bildu

AURKIBIDEA

Sarrera 4

Biktimak eta memoria..... 6

Zigor eta espetxe politika eta
iheslarien itzulera..... 7

Armagabetzea 9

Desmilitarizazioa 10

Bakerako Euskal Bidea

Aieteko Nazioarteko Bake Konferentziatik hiru urte t'erdi igaro diren honetan beharrezkotzat jotzen dugu momentu batez gelditzea eta begirada atzera botatzea. Egun eskuartean daukagun agertoki politikoak oraindik konponbidera eramatekoak diren gai garrantzitsuak barnebiltzen baditu ere alde nabarmena antzematen da garai hartakoarekin parekatuta.

Urte hauetan euskal jendarteak ibilbide ilusionagarria hasi du gatazka politikoaren konponbiderantz eta tamainako urratsak ezagutu ditu norabide horretan. Garrantzitsuena dudarik gabe Aieteko Konferentziatik hiru egunera ETA erakundeak jarduera armatua behin betirako bertan behera uztea erabaki izana, nazioarteko ordezkariak argitara emandako adierazpenenean aurreneko puntu gisa kokatutako eskakizunari bide emanaz.

Zoritxarrez, Aieteko ibilbide orriaren gainontzeko puntuetan ez da gauzatze praktikorik eman; harez geroztik nabaria da bai Espainia zein Frantziako gobernuek darabilten jarrera itxia eta oztopatzailea konponbide integralerako baldintza berri eta eraikitzaileak sortu aldera. Euskal gatazka politikoaren ondorioei dagokienean, bereziki anker eta temati aritu dira giza eskubideen bortxaketa larria dakarten politikak sustatzen eta areagotzen.

Garai politiko berriarekin dugun atxikimendutik eta gatazkaren konponbidea eta bakearekiko konpromisotik, EHBildu osatzen dugunok uste dugu momentua dela jarrerak argitu eta kontrastatzeko gure herriak behar duen adostasunera iristeko. Ariketa hori espainiar zein frantziar estatuen jarrera politiko itxiaren aurrean Euskal Herrian akordioak bilatu behar direlakoan gauden guztioi dagokigu, ahaztu gabe, espainiar eta frantziar Estatuetakoa eta nazioarteko herritar eta erakunde askok euskal bakearen aldeko hautu sendoa egiten dutela.

Hori dela eta, nork bere posizioa zehaztea ezinbestekoa da eta beraz, agiri honetan gatazka politikoaren ondorioei dagokienean gure ustez zer bide jorratu daitekeen marraztuko dugu EHBilduren posizio propio bezala eta beti ere, erdietsi beharko liratekeen adostasun partekatuetarako gure ikusmolde irekia eskainiz.

Jatorri politikoa duen gatazkaren ondorioei dagokienean lau dira gure ustez jorratu beharreko arloak: biktimak eta memoria, zigor eta espetxe politika eta iheslarien itzulera, armagabetzea eta desmilitarizazioa. Gai bakoitzak bere trataera propio eta zehatza behar du; hala ere, lauek elkarren arteko harreman zuzena izanagatik osotasunean hartu behar dira gure ustez bide-orri bakar bezala. Aletu ditzagun lau erre horiek.

BIKTIMAK ETA MEMORIA

Biktimek merezi duten kontsiderazioa emateko eta iraganean jazotakoaren memoria finkatzeko derrigorrezkoa da gertatutakoari buruzko egia ezagutzea. Biktima guztiek, erasotzailea edozein izan dutela, aitortza eta erreparazioa jasotzea eta gertatutakoa ez errepikatzeko bermea edukitzea hartzen ditugu helburutzat.

- Abiapuntua argia da guretzat: biktima guztiek eskubide berberak dituzte aitortza eta erreparaziorako eta baita gertatutakoa ez errepikatzeko bermeari dagokionean ere. Horretarako tresna gisa, gertatutako guztiaren memoria osoa jasotzeko helburuarekin giza eskubideen urraketa guztiak bilduko dituen datu base bat egingo da.
- Biktimek eta jendarteak orokorrean egia ezagutzeko dugun eskubidean oinarrituta “Egiaren Batzorde” bat sortuko da jasandako sufrimendu ezberdinak partekatuz elkarren zauriak ixtea helburu izanik. Egia osatzen duten egia guztiak ezagutzea funtsezkotzat jotzen dugu gertatutakoa etorkizunean ez errepikatzeko.
- Urraketa guztiak jasoko dituen datu basean oinarrituta, biktimen erreparaziorako eta dagozkien eskubide guztiak berenganatzeko bitartekoak ezarriko dira.
- Memoria kolektiboa, plurala eta integratzailea sustatzearen aldekoak gara, eta horretarako alderdi politikoetan eta gobernu eremuetan iraganean indarkeriaren erabilerarekiko eta biktimekiko hartutako erabakiekiko hausnarketa praktikoak sustatuko dira; eta egindako min guztia onartzeko ariketa kritikoak egitea erraztuko da helburu horrekin.

- Irizpide orokor bezala, Giza Eskubideen babeserako zeharlerroko plana burutuko da bai instituzioen zein bestelako eragileen laguntzaz. Plan horrek besteak beste, Giza Eskubideen urraketak babesten dituzten eszepziozko legediak erretiratzea bultzatuko du.
- Errelatoak anitza izan behar du horrelakoxea delako gure gizartea eta etorkizuna eraikitzeko ere funtsezkoa delako aniztasunaren errespetutik egitea.

ZIGOR ETA ESPETXE POLITIKA ETA IHESLARIEN ITZULERA

zaera politikoa duen gatazkaren testuinguruan euskal herritar kopuru esanguratsuak preso jarraitzen du edota ihesean. Gure herriarentzat helburu dugun elkarbizitza normalizatuak eskatzen du konbikzio politikoengatik askatasuna galdu duen edo sorterritik kanpo bizitzera behartuta dagoen euskal herritar bat bera ere ez egotea.

- Bakea eta bizikidetzat helburu duen garai berri batean, legedia errealitate politiko berrira egokitu behar da eta justizia trantsizionalean oinarritutako molde berriak ezarri gizarteari elkarbizitza errotzen laguntzeko.
- Zentzu horretan, eta irizpide orokor bezala, salbuespenezko zigor, espetxe eta auzibide politika legedi arruntera itzuli beharra dago.
- Euskal presoek dagokienean, beren eskubideak urratzen dituzten salbuespen neurriak bertan behera utzi behar dira

lehenbailehen. Horrela, bakartze erregimena aplikatzeari utzi, gaixotasun larriak dituzten presoak kaleratu eta zigorraren 2/3ak bete dituztenei baldintzapeko askatasuna eman behar zaie. Era berean, bizi osorako zigorra edo espetxealdia luzatzea ahalbidetzen duten neurrien aplikazioa bertan behera utzi behar da, hau da, “perpetuité” deritzona Estatu frantsesean eta 40 urteko espetxealdia zein Estatu espainoletik kanpo betetako zigorra ez kontuan hartzea Estatu espainolean.

- Horrekin batera, euskal presoek senitartekoei eragiten dien eskubide urraketarik nabarmenena dakarten urrunketa eta sakabanaketari amaiera eman behar zaie; garaia da preso guztiak Iruñea eta Zaballako espetxeetara ekartzeko ahalik eta azkarren.
- Modu berean, presoek justizia trantsizionalean oinarritutako espetxe politika egokia jaso ahal izateko espetxe eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoarentzat eta Nafarroako Foru Komunitatearentzat eskuratuko dira.
- Euskal presoek etxeratze prozesua ahalbidetzeko bai alderdi politiko eta eragile sozialen artean, bai instituzioetan akordio zabalak erdiestea lehenetsiko da, beti ere, akordio horietan euskal presoek parte-hartzea bultzatuz. Etxeratze prozesua lege baliabideak erabiliz eta bakarkako aplikazioarekin egitea bultzatuko da, horretarako ‘baldintzapeko askatasun aurreraturako’ kaleratze programa bat abian jarri. Programa horrek bere baitan jasoko luke euskal presoek Euskal Herrian irekitako agertoki politiko berriarekiko konpromisoa erakustea eta indarkeriazko bideei uko egitea, eta beren jardueraren ondorioz eragindako mina aitortzea.
- Euskal iheslariak dagokienean itzultze prozesua erraztuko da. Horretarako, batetik, auzirik ez dutenen egoera erregularizatze prozesu bat abiatuko da eta bestetik, auziak dituztenen egoera erregularizatzeari dagokionez, hori arautuko duen legedi espezifiko bat egitea bultzatuko da.

- Irizpide orokor gisa, legeak eta justizia administratzeko mekanismoak garai politiko berrira egokitu eta epaiketa politikoen amaieraren aldeko jarrera mantenduko da.

ARMAGABETZEA

Armagabetzeari dagokionean ETAREN armategien deuseztatzearen bidez burutzea jotzen dugu helburutzat. Gure ustez, honakoa litzateke eman beharko litzatekeen gertaeren sekuentzia:

- Lehenik eta behin, ETAREN armategien zigilatze eta egiaztatze prozesua ahal bezain laster gauzatzea.
- Modu berean, antzeko dinamiketan mundu mailan aritutako adituen sostengua bilatu behar da nazioarteko erakunde erraztatzaileen esku-hartzearekin batera Armagabetze Batzorde Independente bat sortzeko.
- Zeregin honetan garrantzi handikoa da ekimenari ahalik eta babes eta zilegitasun politiko, instituzional eta soziala gehien ematea; horretarako funtsezkoa da EAEko eta NFKko gobernuen, nahiz Euskal Herri osoko alderdi politikoen eta eragile sozialen parte-hartze eraikitzailea bakoitzari dagokion mailan.
- Armagabetze Batzorde Independenteak ETAREN armategien deuseztatzearekin bukatuko den prozesu kontrolatu, ordenatu eta adostu bat diseinatuko eta azken bururaino eramango luke arrazoizko epe batean.

DESMILITARIZAZIOA

Azken helburua euskal gatazkaren ekuaziotik armen aldagaia behin betirako desagerraraztea izanik, beharrezkotzat jotzen dugu Estatuko Segurtasun Indarren erretiratzea eta horrela herritarren babes eta zerbitzu lanak Euskal Polizia Kidegoek betetzea.

- Helburu horrek Estatuko Segurtasun Indarrak era mailakatuan erretiratzeko plan bat egitea eta adostea eskatuko du.
- Horretarako, Estatuko Segurtasun Indarrak erretiratzeko plana eta irizpideak Gasteizko eta Iruñeko Parlamentuetan onartuko dira eta ondoren gobernu espainiarrarekin adostuko.
- Abiapuntu bezala, Estatuko Segurtasun Indarren kopuru eta funtzioa gaur egun indarrean dagoen legedira egokitu beharko da, beraien eskumenak komunitatez kanpo eta gaindikoetara mugatuz. Ondorioz, arian-arian Ertzaintzak eta Foruzaingoak beren gain hartuko dituzte herritarren babes eta zerbitzu lanak.
- Lan horiek bere gain hartuko dituzten Euskal Polizia Indarren baitan giza eskubideak babesteko mekanismo independente eraginkorrak sortuko dira iraganeko praktika okerrak gainditu eta gizarte oso baten zerbitzuan jartzeko.
- Horrek, besteak beste, propio bultzatu nahi izan duten izaera politikoko polizia jardunaren amaiera ekarriko du; horrela, polizia zerbitzuek jardun politikorako eskubidea babestu egingo dute herritarren oinarrizko giza eskubidea den neurrian.

Proposamen hau “Euskal Bidea” deritzon ekimena martxan jartzera eramán gintuen ikuskera beretik jaio da, euskal jendarteak bere ordezkari politiko eta sozialen arteko elkarriketa eta akordiotik bai erabakitze eskubidearen ariketa zein bake prozesua sendotuko duten urratsak ematea eskura duen konbentzimenduan, interes orokorretik gatazka politikoaren ondorioen erresoluzioa bultzatuz.

Beraz, agiri honek horren inguruan Euskal Herria Bilduk duen posizioa finkatzen du. Gure ustez bere edukiek bide erreala, justua eta era berean euskal jendartearen gehiengo zabalerako izugarri pragmatikoa dena ordezkatzen dute. Erabaki dugu modu proposatzailean aritzea eta gure herriaren errealitatearekin bat datorren proposamen bideragarria aurkeztea, beti ere, gainontzeko eragile sozial eta politikoak oraindik horretan ez badaude behintzat, modu eraikitzailean aritzea bilatuz.





INTERNATIONAL CONFERENCE
TO PROMOTE
THE RESOLUTION
OF THE CONFLICT IN THE
BASQUE COUNTRY

Oronoko - San Sebastián, 17 October 2011

GATAKAREN KONPONIDEA BIRATTERO
NAZIOARTETIKO KONFERENTZIA EUSKAL HERRIAN

CONFERENCIA INTERNACIONAL PARA PROMOVER
LA RESOLUCIÓN DEL CONFLICTO EN EL PAÍS VASCO

CONFERENCE INTERNATIONALE POUR PROMOUVOIR
LA RESOLUTION DU CONFLIT AU PAYS BASQUE



Gatazkaren konponbidea sustatzeko nazioarteko konferentzia
Aieteko Jauregia (Donostia) 2011-10-17